


GEBren dokumentazio zentroko 2018ko azaroko artikulua nabarmenak

MÉNDEZ, Inmaculada eta Fuensanta CEREZO RAMÍREZ. [Bullying-a: gizartea eta osasuna arriskuan jartzen duten jokabideen analisia](#). INFAD, 2010, 257-265. ISSN 0214-9877



Egindako ikerketek erakusten dute ikasleen arteko bizikidetzara arazo larria bilakatzen ari dela hezkuntza-sisteman; izan ere, Espainiako datuak nazioarteko batez bestekotik gora daude, Ekonomiako Lankidetzara eta Garapenerako Erakunderen (OCDE) Irakaskuntzari eta Ikaskuntzari buruzko Nazioarteko Ikerlanak (ingelesez TALIS, Teaching and Learning International Survey) berriki (2009) argitara eman dituen datuen arabera. Irakasleek askotariko jokabide asaldatzaileei egin behar diete aurre, hala nola ahozko erasoak zein eraso fisikoak, bandalismoa, mendekotasuna eragiten duten substantzien kontsumoa, etab.

Horri guztiari eta Drogei buruzko Plan Nazionalerako Gobernuaren Ordezkaritzak emandako datuei (2009) erantsi behar zaie nerabeen jokabideek arrisku handiak dakartzatela ez soilik gizartearentzat, bai eta osasunarentzat ere (polikontsumoa, alkoholaren eraginpean gidatzea, etab.), eta jokabide horiek oso gaztetan hasten dituztela, arrisku-maila baxuak hautemanen. Garatzen ari garen ikerketaren helburua da aztertzea ea loturarik dagoen bullying-aren arazoan sartuta daudenen eta gizartea eta osasuna arriskuan jartzen duten jokabide jakin batzuetan aritzearen artean. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 886 ikasleko lagin bat erabili zen, ebaluazio-tresna hauek baliatuta: Test BULL-S (Cerezo, 2000) eta gizartea eta osasuna arriskuan jartzen duten jokabideei buruz *ad hoc* sortutako inkesta bat (Cerezo, Méndez eta Rabadán 2009). Ikerlanaren atariko emaitzek erakusten dute ikasleen % 20,8k parte hartzen duela bullying-aren arazoan, rol desberdinetan; hala, bada, gizartearentzat eta osasunarentzat arrisku handiko jokabideak dituzte, nabarmenki: alkoholaren eraginpean gidatzea, ordena publikoko indarrek atxilotzea, hiri-tribu batekoa izatea edo horrekin identifikatzea (grafiteroak edo jatorri latinoko taldeak).

BENITO OSORIO, Diana eta Montserrat JIMÉNEZ PARTEARROYO. [Startup-ak eta APP-ak: gazteen egiteko modu berria.](#) Revista de Estudios de Juventud 118. Instituto de la juventud, 2017 Diciembre, 83-100. ISSN-e 0211-4364



Espainian ekintzailetasuna ez da ohikoa, are gutxiago berrikuntzaren arloan, nahiz eta aldatzen ari den ingurune bat eraginaren pean gauden, non negozio-ereduak etengabe eraldatzen eta moldatzen diren eskariaren eta teknologia berrien arabera. Hori dela eta, garrantzitsua da enpresa-fenomeno hori aztertzea. Artikulu honetan enpresa-ekintzailetasun berritzailearen berrikusketa bat egiten da, kontzeptuei dagokienez, eta erreferentzia argia eginez, bereziki, smartphone edo mugikorretarako aplikazioak (App-ak) garatzera bideratutako *startup*-ei. Lan honetan azaldu dugu, batetik, teknologia horiek zer diren, zer merkatu-egitura duten xede, nola banatzen diren eta zer negozio-eredu duten atxikita, horrela aplikazio horien egungo arrakasta ulertzeko eta ulertzeko, baita ere, zer aukera aurki ditzaketen gazte ekintzaileek app-ak garatzearekin lotutako *startup*-ak zuzentzen jardun nahi badute. Abantailen artean daude, besteak beste, inbertitutako kapitala eskuragarria dela, eta kasu askotan faktore hauekin lotzen dela: ekintzaileak bere xedea garatzen eman dezakeen denbora, azken kontsumitzailearengana iristeko erabiltzen den kanala dagoeneko sortuta egotea, proiektatzen den merkatua globala izatea eta etekinak altuak izatea.

BISQUERRA, Rafael. **Garapen integralerako heziketa emozionala bigarren hezkuntzan.** Aula de secundaria 28. Editorial Graó, 2018 Septiembre-Octubre, 10-15. ISSN 2014-8615



Heziketa emozionala gaitasun emozionalak garatzera bideratutako heziketa-prozesua da; izan ere, gaitasun emozionalak funtsezko alderdiak dira pertsona baten garapen integralean Bizitzarako hezkuntza bat behar dugu. Hala eta guztiz ere, praktikan, batez ere bigarren hezkuntzan, ezaguerak igortzean jartzen dugu arreta, nagusiki. Noizean behin, komeni da hezkuntzaren helburua zein den berriro pentsatzea eta garapen integralerako bideak proposatzea.